


3.6.2. UDAL-ALORRAK. KOMUNITATE-GARAPENA. GAZTERIA.

IRUÑEKO GAZTEDIAREN ETXEA

ZERBITZUAK, GUZTIRA	2016	2017	Aldakuntza	
			Erabiltzaileak	Ehunekoa
	91.447	98.145	+6.698	+7%

Osoa neurtzen dut Gaztetasuneko Etxeko erabiltzaileetako



JARDUERAK

Jarduera mota	Kopurua		
	2016	2017	Aldakuntza
Aisialdiko eta denbora libreko ikastaroak	100	98	-2%
Doako informatika-lantegiak	44	44	0%
Programazio Zerbitzuaren ekitaldiak	22	24	+9%
Erakusketak	9	10	+11%
Aisia-larunbatak	10	10	0%
Gazte elkarten ekitaldiak	56	64	+14%
Beste jarduera batzuk	100	98	-2%
Jarduerak, guztira	44	44	0%

INFORMAZIO-ZERBITZUAK

	ERABILTZAILEAK		
	2016	2017	Aldakuntza
Gazteendako Informazio Bulegoa	8.280	8.569	+3%
Aholkularitza Juridikoa	477	480	+1%
Elkartegintzarako Aholkularitza	252	255	+1%
Psikologia-aholkularitza	102	109	+7%
Ikasketa-aholkularitza	107	135	+26%
Bidaiaategia	92	134	6%
Boluntarioendako Argibide Bulegoa	644	643	-0,15%
GUZTIRA	9.954	10.325	+4%

ESPAZIO-LAGAPENAK

	ERABILTZAILEAK		
	2016	2017	Aldakuntza
Areto-lagapen iraunkorretarako eskaerak	44.329	51.045	+15%
Noizbehinkako areto-lagapenatarako eskaerak	11.977	10.505	-12%
Ikasketa-gela	868	981	+13%
GUZTIRA	57.174	62.531	+9%

PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIOA

PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIOA	ERABILTZAILEAK		
	2016	2017	Aldakuntza
Ikastaroetako parte-hartzaileak	1.709	1.659	-3%
Informatika-lantegi irekiak	679	467	-31%
GUZTIRA	2.388	2.126	-11%

GIZARTE- ETA KULTURA-EKITALDIAK

	ERABILTZAILEAK		
	2016	2017	Aldakuntza
Kultur jarduerak	1.644	1.617	-2%
Erakusketak	1.065	957	-10%
Aisia-larunbatak	860	1.142	33%
Gazte taldeen jarduerak	3.545	4.293	21%
Beste jarduera batzuk	114	699	513%
GUZTIRA	7.228	8.708	20%

ZIBERGELA

	ERABILTZAILEAK		
	2016	2017	Aldakuntza
Zibergela	9.951	8.080	-19%
WIFI erabiltzaileak	4.752	4.944	4%
Iruña Gaztemaker Space	(ez zegoen)	1.413	-
GUZTIRA	14.703	14.455	-10%

GAZTEENDAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK

EKINTZAILE GAZTEENDAKO DIRU-LAGUNTZAK. Diru-laguntza hau 50.000 euroko zuzkidurarekin deitu da. Deialdira 24 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 21ek eskuratu zituzten laguntzak; guztira 28.546,13 euro eman ziren. Ekintzaileen profilari dagokionez, gazte ekintzaileen % 44 31-35 urte bitartekoak dira, eta % 42, 25-30 urte bitartekoak. Generoari dagokionez, % 65,5 emakumeak dira, autonomoak gehienbat (16); halere, sozietate mikrokooperatiboak nabarmen gehiago dira 2016. urtekoak baino. 31 lanpostu sortu dira.

DIRU-LAGUNTZAK, GAZTEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK EGITEAGATIK. Diru-laguntza hau 51.000 euroko zuzkidurarekin deitu da. Orotara, 17 eskabide aurkeztu dituzte, eta diruz laguntzeko 80 jarduera. N^a Sra. de la Paz taldea, Jóvenes para Cristo elkarteak, Nafarroako Eskaut Katoliko taldea, Dendari Izar Eskaut Taldea, Mikael Eskaut Taldea, V. Tropa Eskaut Taldea, San Pedro eta San Saturnino Gazte Elkartea, Garaiz gazte elkarteak, Baracea Eskaut Taldea, Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkartea, Garaiz Gazte Elkartea, I Becchi Gazte Elkartea, Lantegi, Antitele Aisialdi Kluba, Noray Gazte Taldea eta Sierra de Alaiz Kluba.

BESTELAKO JARDUERAK ETA PROGRAMAK

- **«Txankletak» udako programa.** Kirol-jarduerak programatu ziren, hala nola urpekaritza, saltina, eskalada eta piraguismoa, baita adimena lantzeko jarduerak –Ziudadelako ihes-jokoa, adibidez– (Kultura alorrarekin batera antolatuta Harresien Jaialdiaren barruan), eta kultur arlokoak ere (zinema, besteak beste).

Kirol-jarduerari dagokionez, 222 leku eskaini ziren talde-jardueretarako eta banakako 400 bonu, ihes-jokorako 180 leku zeuden –6 saiotan banaturik– eta 1.000 sarrera zinemarako.

- ESKALADA, RAPPELA ETA ABENTURA-PARKE HANDIA: 69 (G: % 42; E: % 58)
- URPEKARITZA-BATAIOA: 97 (G: % 38; E: % 62)
- SALTINGA: 55 (G: % 58; E: % 42)
- PIRAGUISMOA: 125 (G: % 35; E: % 65)
- IHES-JOKOA: 180 (G: % 30; E: % 70)

- **Udazkeneko ihes-jokoa:** 4 saio programatu ziren, eta eskainitako plaza guztiak bete ziren (120).

- **Lehiaketak.** Udalak antolatutako gazteendako literatur lehiaketara 41 olerki-lan aurkeztu dituzte; horietatik 28, 14-16 urte bitarteko kategoriari dagozkio, eta 13, 17-18 urte bitartekoari. Udalak antolatutako gazteendako literatur lehiaketara 62 olerki-lan aurkeztu dituzte; horietatik 42, 14-16 urte bitarteko kategorian, eta 20, 17-18 urte bitartekoan.

- **Entsegu-bonuak** Musika modernoko talde hasiberriei laguntzeko programaren barruan, Iruñeko Udalak 194 entsegu-bonu diruz lagundu ditu. Orotara, 29 taldek eskatu dute zerbitzu hori.

-Prebentzioko esku-hartze proiektua sanferminetan. Hegoak elkartearen bitartez, jai-inguruko droga-kontsumoari lotutako arriskuak eta kalteak gutxitzeari buruzko frogako esku-hartze bat egin da. Jarduera Errekoleten plazan egin zen, 4 lagunekin; uztailaren 6an, 11:00-13:00 ordutegian, eta uztailaren 7tik 13ra, 23:00-3:00 ordutegian, gutxi gorabehera. Bi gune ibiltari ere egon ziren, bina lagunekin, jai-esparruen barrena, informaziogune finkoaren berri ematearren. Gune horien ordutegia, gutxi gorabehera, hau izan zen: uztailaren 6an, 11:00-13:00, uztailaren 7tik 13ra, 23:00-3:00, eta, gune batean, uztailaren 6tik 13ra, 20:00-23:00 ordutegian.

Gune finkoaren datu orokorrak:

Banaturako materialak, guztira	1240
Gunera hurbildu diren eta bertan parte hartu duten pertsonen zenbatespena	880
Gune finkoan galderak egin dituzten pertsonen zenbatespena	450
Gune ibiltarien bitartez informazioa jaso duten pertsonen zenbatespena	1680

- Sanferminetako gazte eremua. Kultura Alorrarekin koordinatuta, nerabe aurreko adineko gazteei eta nerabeei (12-17 urte) zuzendutako programazioa diseinatu zen, xede harturik populazioaren segmentu horren behar eta ezaugarrietara egokitutako jarduera alternatibo espezifikoa eskaintzea. Ekimenak oso harrera ona izan zuen, programazioa uztailaren 10ean hasi zen arren. Bi (2) animatzaile arduratu ziren eremua dinamizatzeaz, Community Manager bat, berriz, sare sozialetako jarraipenaz.

-Jarduerak espetxeetan. Eskulan-lantegia: 52, 44 eta 42 orduko 3 ikastaro eman dira; 60 parte-hartzaile izan dira guztira.